

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2005EKO OTSAILA


Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduerak urte arteko %0,1eko hazkunde-tasa izan du 2005eko otsailean

Aurreko hilabetearekin erkatuta (2005eko urtarrila), %0,6ko hazkundea izan du

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2004ko otsailarekin erkatuta %0,1 hazi da 2005eko otsailean.

2005eko otsailean, eta aurreko urteko urtarilaren erkatuta, EAEko industri produkzioak %0,6ko hazkundea izan du baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean. Aurtengo urtarilean hil arteko tasa horrek %1,1eko hazkundea izan du eta, beraz, urteko bigarren hilabeteko hil arteko bilakaerak lehenengoarekin erkatuta desazelerazio arina izan du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2005eko urtarrila-otsaila bitarteko urte arteko hazkunde zuzendua
Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2005eko otsaileko indizearen bilakaera hazi egin da Energiaren (%3,4) eta Ekipamenduko ondasunetan (%0,9), 2004ko otsailarekin erkatuta. Kontsumo-ondasunek %4,2 egin dute behera. Azken hauetan bi atal bereiz daitezke: kontsumo-ondasun iraunkorrak, urte arteko %4,4ko hazkundearen dutenak, eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak, %8,1eko atzerakada dutenak. Bestalde, Tarterako ondasunek urte arteko %-0,4ko tasa negatiboak dituzte.

2005eko urtarilarekin erkatuta, 2005eko otsaileko hil arteko aldaketak positiboak izan dira Ekipamenduko ondasunak (%0,9), Tarteko ondasunak (%0,8) eta Energia (%0,5) bezalako industri sektore nagusienetan. Kontsumo-ondasunek hil arteko %2,2ko beherapena izan dute; hauen artean, alabaina, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %2,1 hazi dira aurreko hilabetearekiko eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %4,4 murriztu dira.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde Historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera ezberdina izan da; izan ere, Araban %6,4 murriztu da eta Bizkaian eta Gipuzkoan %0,2 eta %4,0 hazi da hurrenez hurren.

2005eko otsailean, eta 2005eko urtarilarekin erkatuta, hil arteko hazkunde-tasek ere bilakaera ezberdina izan dute lurraldeen arabera; Gipuzkoan %3,1 hazi da eta Araban eta Bizkaian %0,6 eta %1,0 murriztu hurrenez hurren.

**Taula: 2005EKO OTSAILA. Euskal Autonomia Erkidegoko
Industri Produkzio Indizearen aldaketa-tasak (%)**

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	ots05/ots04	At/At-1 (1)	ots05/urt05	urt05/abe04
Indize orokorra: Euskal AE	0,1	0,0	0,6	1,1
Araba	-6,4	-5,2	-0,6	-2,0
Bizkaia	0,2	2,2	-1,0	2,9
Gipuzkoa	4,0	0,4	3,1	1,0
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-4,2	-1,6	-2,2	0,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	4,4	1,3	2,1	0,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-8,1	-3,0	-4,4	1,0
Ekipo-ondasunak	0,9	0,5	0,9	3,3
Bitarteko ondasunak	-0,4	-0,9	0,8	1,4
Energia	3,4	2,2	0,5	0,3

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

Iturria: Eustat

Oharra: Eurostat-ek "Methodology of Short-term Business Statistics. Interpretation and Guideliness. 2002 edition" delako agirian egindako gomendioak jarraituz, EUSTATEk 2005eko urtariletik aurrera egutegiaren ondorioak zuzenduta dituen serieak erabiliko ditu urte arteko hazkunde-tasarako (m/m-12) eta tasa metatuetarako (At/At-1); ildo berean, estazionalitatearen arabera serieak erabiliko ditu hil arteko tasarako (m/m-1). Hala ere, erabiltzaileek EUSTATEN web gunean eta datu-bankuan eskura ditzakete datu gordinak.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [¡Error!Marcador no definido.](#)

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp